


EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA

HERRITARREN
SEGURTASUNEAN



2021

Izenburua: "Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa Herritarren segurtasunean"

Editorea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Emakunde

Data: 2021eko uztailean eguneratua

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA	4
2. GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK	7
2.1 EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN	7
2.2 BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK	18
2.3 EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA.....	23
2.4 GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA	26
2.5 BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK	30
3. LEGEDIA.....	33
4. DATU-ITURRIAK	35
5. ERREFERENTZI-AGIRIAK.....	37

1. TESTUINGURUA

Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua xedatzen duenez, «pertsona orok askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea du».

Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoak (martxoaren 30eko 4/2015 Legea) hauxe adierazten du hitzaurrean: «**Herritarren segurtasunak** bermatzen du konstituzio demokratikoen aitortutako eta babestutako eskubide zein askatasunak herritarrek askatasunez baliatu ahal izatea, guztia ere ez daitezen geratu eraginkortasun juridikorik gabeko adierazpen formal huts gisa. Hau da, eskubideak eta askatasunak bermatzeko tresna bihurtzen da segurtasuna, eta ez helburua berez.

Hitzaurre horretan bertan adierazten da, halaber, dotrinak eta jurisprudentziak herritarren segurtasunaren eta segurtasun publikoaren kontzeptu horiek, xehetasunak xehetasun, sinonimotzat hartu dituztela, eta pertsonak babesteko jardueraren barruan daudela.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), eskumen horri berari lotutako arauan (15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa), ulertzen da **segurtasun publikoaren sistemak** barne hartzen dituela polizia eta herritarren segurtasuna, larrialdietako eta babes zibileko politika eta beste jarduereremu administratibo batzuk, hala nola bide-segurtasuna, jokia, ikuskizunak eta jolas-jarduerak, eta abar. Herritarren segurtasuna segurtasun publikoaren sistemaren zatitza hartzen da, beraz.

Horrela jasotzen du, halaber, 2020-2025 aldirako Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorrak.

Dokumentu honen ondorioetarako, **herritarren segurtasunaren** nazioarteko definizio hau hartu da: beste pertsona batzuek norberari edo ondasunei nahita egindako indarkeriarik gabeko edo indarkeria horren mehatxurik gabeko egoera pertsonal, objektibo eta subjektiboa¹. Erakundeen ikuspegitik, Nazio Batuen Garapenerako Programak zabaltzen duen herritarren segurtasunaren definizioa honako hau da:

«Ordena zibil demokratikoa ezarri, indartu eta babesteko prozesua, herritarren indarkeria-mehatxuak ezabatuz eta koexistentzia seguru eta baketsua ahalbidetuz. Ondasun publikotzat hartzen da, eta berekin dakar pertsonari datxezkion giza eskubideak eraginkortasunez babestea, bereziki bizitzeko eskubidea, osotasun pertsonala, bizilekuaren bortxaezintasuna eta mugitzeko askatasuna».²

Horrenbestez, genero-ikuspegitik betiere, bizikidetzak baketsu eta demokratikoaren aurkako indarkeria eta mehatxuak dakartzaten jokabideak kontrolatzearekin zerikusia duten gaiak jorratuko ditugu batez ere gida honetan, eta ez ditugu landuko, ordea, segurtasun publikoarekin zerikusia duten beste gai batzuk, hala nola larrialdiei aurre egitea (osasun-, klima-, gizarte-larrialdiak edo beste mota batekoak), babes zibila edo bide-segurtasuna.

¹ Garapenerako Nazio Batuen Programak dokumentu honetan egindakoan oinarrituta egokitu da definizioa: *Venciendo el temor: (In)seguridad ciudadana y desarrollo humano en Costa Rica*, Giza garapenera buruzko txosten nazionala 2005. San Jose: NBGP, 2006. [Esteka](#)

² NBGP: Herritarren Segurtasuna (2014). [Esteka](#)

Herritarren segurtasunaren dimentsioa, berriz, poliziaren ikuspegitik aztertuko da batez ere, polizia-kidegoek baitute, indarrean den legeriaren arabera, gai horren gaineko eskumena.

Lehenik eta behin, delitu-jarduerak emakume eta gizonetan ez duela eragin bera nabarmendu behar dugu. Delituak egiten dituzten pertsona gehienak gizonak dira, eta, neurri txikiagoan bada ere, gizonak ere badira delitu eta falten biktima gehienak. Joera hori aldatu egiten da, halere, familia-eremuan eta sexu-askatasunaren aurka egindako delituei dagokienez, biktima gehien-gehienak emakumeak baitira horietan. Emakumeek, besterik gabe emakumeak direlako, jasaten duten indarkeriak azaltzen du fenomeno hori. Indarkeria hori ez da gizonen kasuan gertatzen, eta emakumeen aurkako indarkeria esaten zaio, gure garaiko gaitzik handienetako bat.

Beste alderdi bereizgarri bat honako hau da: estatistikoki gizonen probabilitate handiagoa dute delitu baten biktima izateko emakumeek baino, eta hala ere, segurtasunik ezaren sentimendu nabarmen handiagoa dute emakumeek gizonen baino; horrek izugarri mugatzen die emakumei askatasunez ibiltzea eta oinarrizko eskubideak osotasunez erabiltzea.

Pertsonen eta ondasunen segurtasuna zaintzeaz arduratzen diren polizia-kidegoek dagokienez, emakumeek oso parte-hartze txikia dute haietan, eta horrez gain, behe-mailetakoa kategorietan eta eginkizun nagusizat planifikatzea, koordinatzea, administrazio-prozedurak izapidetzea, ikertzea eta kudeatzea dituzten unitateetan daude ia bakarrik; babesteko eta baliabide operatiboaren arloko eginkizun espezifikoak dituzten unitateetan, aldiz, gizonak dira nagusi.

Azken alderdi horri lotuta, emakumeek behar baino ordezkari txikiagoa dute, orobat, hala erantzukizuneko karguetan eta lanpostuetan, nola herritarren segurtasunarekin zerikusi zuzena duten kide anitzeko administrazio-organismoetan.

Gainera, gizonak ere badira, alde handiz, atxilotuei arretoa eta orientazio soziala emateko zerbitzuen erabiltzaile gehienak, eta oso bestelakoa da, aldiz, delituen biktimei laguntzeko zerbitzuetako egoera, horietan emakumeak baitira erabiltzaile nagusiak.

Rolek eta estereotipoek azaltzen dituzte, neurri handi batean, desberdintasun eta desparekotasun horiek guztiak, emakumeak «sexu ahula» balira bezala irudikatzen baitituzte oraindik; gizon indartsu, ausart, odolgabe eta boteretsuek babestu beharreko biktima potentzial gisa, alegia. Testuinguru horretan, indarkeria funtsezko elementua da gizonen sozializazioan, dela emakumeen aurka, dela beste gizonen aurka edo beren buruaren aurka erabiltzeko.

Herritarren segurtasunaren esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko, funtsezkoa da indarrean dagoen legeriak berdintasunaren arloan ezarritako aginduak bete daitezen sustatzea. Agindu horiek honako alderdi hauekin dute zerikusia, besteak beste: rolak aldatzearekin; emakumeak ahalduz ematen dituzten jarduerarekin; gizonen berdintasunaren alde esku hartzearekin; indarkeriazko jokabideen prebentzioa eta haien biktimei ematen zaien laguntza hobetzearekin – emakumeen aurkako indarkerian arreta berezia jarrita–, eta polizia-kidegoetan eta sektore-eremu horretan erabakiak hartzen dituzten esparruetan gizonen eta emakumeen parte-hartze orekatua eta berdintasunezkoa sustatzearekin.

2. GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

2.1 EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Herritarren segurtasunak, beste pertsona batzuen nahitako indarkeriarik edo indarkeria-mehatxurik gabeko egoera pertsonala den aldetik, zuzeneko lotura du arriskuaren existentziarekin, arrisku hori benetakoa (objektiboa) edo hautemana (subjektiboa) izan.

Horrenbestez, hainbat ikuspegitatik azter daiteke emakumeek eta gizonek segurtasunaren arloan duten presentzia ezberdina:

- **Delitugilearen ikuspegia:**

Arriskuaren dimentsio objektibo batetik, jarduera kriminalari dagokionez intzidentzia ezberdina dago emakume eta gizonen artean. 2019ko datuak aintzat hartuta, Estatistikako Institutu Nazionalak **persona kondenatuei** buruz jakinarazi du Euskal Autonomia Erkidegoan kondenatutako emakumeak pertsona guztien % 20,22 direla (12.116). Era berean, EAEn 18.697 delitu izan ziren guztira, eta delitu horien % 18,35 baino ez zituzten emakumeek egin; delitu mota guztietan zegoen gizonen gehiegizko ordezkari³.

Delinkuentziaren zati handi baten genero maskulinoa ikusten da, orobat, arau-hauste penalagatik atxilotutako eta ikertutako pertsoneri buruzko estatistikan. Horren berri ematen du Barne Ministerioak⁴ estatu osoko kriminalitateari buruzko estatistika-atarian, eta horixe bera ikusten da, era berean, Ertzaintzak EAEn egindako atxiloketen eta ikerketen estatistiketan. Azken iturri horren arabera⁵, 4.801 **atxiloketa** izan ziren 2020an, eta gizonak izan ziren atxilotu horien % 90,5. **Ikerketei (edo inputazioei)** dagokienez, Ertzaintzak 21.531 ikerketa egin zituen urte horretan; gizonei buruzko ikerketak horietatik % 76 baino gehiago.

Zenbait delituren kasu zehatzari begiratuz gero –«Familia barruko tratu txar ohikoak», adibidez–, gizonak dira atxilotuen % 92, eta % 98, berriz, «sexu-askatasunaren aurkako delitu»ei dagokienez. Ertzaintzak segurtasun kolektiboaren aurkako delituengatik egindako atxiloketen estatistikak ere gainditzen du batezbestekoa, gizonak % 91,2 baitira.

Era berean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 2020ko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoan preso zeuden herritarrei buruz emandako espetxe-estatistikaren arabera⁶, argi eta garbi ikusten da gizon presoak nagusi direla (% 90,9) emakumeen aldean (% 9,1), haien egoera prozesala edozein izanik ere.

³ EIN. Prentsa-oharra, Kondenatuen estatistika: Helduak eta adingabeak, 2019. [Esteka](#)

⁴ Kriminalitateari buruzko estatistika. [Esteka](#)

⁵ Delituei buruzko Ertzaintzaren estatistikak. [Esteka](#)

⁶ Espetxe-estatistika. [Esteka](#)

Delituzkoa ez bada ere, mendekotasuna eragiten duen arrisku-jokabideen adibide zehatza da jokatzeko ohitura, patologiko edo **ludopatía** bihurtzen denean, eszitazioa lortzeko bitarteko kontrolaezin gisa. Jokabide horrek ondorio larriak ditu, ludopatarentzat ez ezik, baita bere ingurunearentzat ere. Segurtasun Sailak bere gain hartutako eskumenetako baten barruan sartzen da arazo hori, eta genero-konnotazioak ere baditu.

Jokoaren Euskal Behatokiaren 2019ko Memoriaren⁷ arabera EAeko biztanleen % 16,8k egunero edo astean behin edo batzuetan jokatu zuten azken urtean (gizonen % 19,3 eta emakumeen % 14,7). Onlineko jokoaren kasu zehatzean, proportzioa % 2,7koa da gizonetan eta % 1,5ekoa emakumeen artean. Eta EAEn Interdikzioen Erregistroan inskribatutakoei edo beren burua jokotik baztertutakoei dagokienez, urte horretako azaroan, 322 emakume eta 824 gizon zeuden izena emanda.

Jokoarekiko mendekotasunaren larritasunaren berri ematen duten estatistikak sexuaren arabera bereizitako datuekin edukitzea zailagoa da, baina aldeak daude. Segurtasun Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean (2018-2021) jasotzen denaren arabera –adikzio horren tratamenduan espezializatutako erakundeen txostenetan oinarrituta–, emakumeak eta gizonak ez dira modu berean iristen joko konpultsibora: gizonek sentsazioak lortu nahi dituzte; emakumeek, ordea, arazo pertsonal jakin batzuei ihes egin edo aurre egiteko modu bat, hala nola frustrazioari, asperdurari, bakardadeari edo familia-arazoei (bikote-harreman gatazkatsua). Gizonak, oro har, nerabezaroan iristen dira mendekotasun horretara, baina adin handiagoa dute egoera horretara iritsitako emakumeek (30-40 urte dituzte batez beste); emakumeen nahasmendurako progresioa bi aldiz azkarragoa da, halere.

Jokoarekiko mendekotasuna izateak emakumeei nahasmendu mentalak (arretarik eza, sumindura, depresioa) eta fisikoak (nahasmendu psikosomatikoak, hari lotutako alkohol-kontsumoa) sortzen dizkie, eta ondorioak dakarzkie arlo ekonomikoan zein harremanetan. Bilakaera barnekoagoa eta sakonagoa izaten dute emakumeek, baina ez dizkie gizonei adina arazo sortzen justiziarekin (lapurretak, faltsifikazioak, etab.). Gizartea zorrotzagoa da emakumeekin, gainera; hala, ikuspegi moralak ematen zaio arazoari, eta biziotsutzat hartzen dituzte emakumeak, ez gaixotzat; horregatik, gizonei baino askoz gehiago kostatzen zaie arazoa aitortzea eta laguntza terapeutikora jotzea⁸.

- **Delitua jasaten duenaren ikuspegia:**

Ondorengo taulan ikusten denez, dimentsio horretatik, emakumeak dira pertsonen aurkako delituen hartzaile nagusiak –horien artean familia-harremanen aurkako delituak, askatasunaren aurkakoak, oro har, eta sexu-askatasunaren aurkakoak barne hartuta–; gizonak gehixeago dira, ordea, ondarearen aurkako zenbait delituen biktimetan, bereziki indarra erabiliz egindako lapurretetan, ibilgailuen osteetan edo ordena publikoarekin lotutako delituetan.

⁷ Jokoaren Euskal Behatokia: Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak, 2019ko abendua. [Esteka](#)

⁸ Echeburúa, Enrique: «Adicción al Juego en la Mujer y Comorbilidad. Implicaciones para el tratamiento», in Revista de Patología dual, 1 (1): 2 (2014). [Esteka](#)

Taula 1. Arau-hauste penalen biktimizazioak EAEn, tipologia penalaren eta sexuaren arabera (2019)

	Guztira	E	G	E (%)
1. PERTSONEN AURKAKOAK	40	30	10	% 75
1.1.- Dolozko giza hilketak/erailketak	1	1	0	% 100
1.1.1.- Burututako dolozko giza hilketak/erailketak	0	0	0	% 0
1.2.- Lesioak	11	4	7	% 36
1.3.- Familia barruko tratu txarrak	28	25	3	% 89
1.4.- Pertsonen aurkako beste batzuk	0	0	0	% 0
2. ASKATASUNAREN AURKAKOAK	112	71	41	% 63
2.1.- Familia barruko tratu txar ohikoak	4	4	0	% 100
2.2.- Askatasunaren aurkako beste batzuk	108	67	41	% 62
3. SEXU-ASKATASUNA	29	26	3	% 90
3.1.- Sexu-erasoa	0	0	0	% 0
3.2.- Sexu-erasoa, penetrazioarekin	1	1	0	% 100
3.3.- Adingabe edo desgaituak galbideratzea	0	0	0	% 0
3.4.- Adingabeen pornografia	1	1	0	% 100
3.5.- Sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako	27	24	3	% 89
4. FAMILIA-HARREMANAK	12	10	2	% 83
5. ONDAREA	1.324	586	738	% 44
5.1.- Easketak	469	241	228	% 51
5.2.- Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurretak	51	7	44	% 14
5.2.1.- Gauzetan indarra erabiliz ibilgailuen barnealdean	37	4	33	% 11
5.2.2.- Indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak	2	0	2	% 0
5.2.3.- Indarra erabiliz establezimenduetan egindako	8	1	7	% 13
5.3.- Indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurretak	22	7	15	% 32
5.3.1.- Bide publikoan indarkeria erabiliz egindako	15	4	11	% 27
5.3.2.- Indarkeria erabiliz etxebizitzetan egindako	1	0	1	% 0
5.3.3.- Indarkeria erabiliz establezimenduetan egindako	2	0	2	% 0
5.4.- Ibilgailuak ostea	36	2	34	% 6
5.5.- Maulak	673	302	371	% 45
5.5.1.- Banku-maulak	42	21	21	% 50
5.6.- Kalteak	32	12	20	% 38
5.7.-Jabetza intelektualaren/industrialaren aurkakoak	3	3	0	% 100
5.8.- Kapitalak zuritzea	1	1	0	% 100
5.9.- Ondarearen aurkako beste batzuk	37	11	26	% 30
6. SEGURTASUN KOLEKTIBOA	0	0	0	% 0
6.1.- Droga-trafikoa	0	0	0	% 0
6.2.- Bide-segurtasunaren aurkakoak	0	0	0	% 0
6.3.- Segurtasun kolektiboaren aurkako beste batzuk	0	0	0	% 0
7. FALTSUTZEAK	49	20	29	% 41
8. ADM. PUBLIKOA	1	0	1	% 0
9. JUSTIZIA ADM.	11	10	1	% 91
10. ORDENA PUBLIKOA	8	2	6	% 25
11. LEGERIA BEREZIA	0	0	0	% 0
12. BESTE ARAU-HAUSTE PENAL BATZUK	18	15	3	% 83
ARAU-HAUSTE PENALAK, GUZTIRA	1.604	770	834	% 48

Iturria: Kriminalitateari buruzko atari estatistikoa. Urteko serieak, Barne Ministerioa

Hau da, eremu pertsonalean eta familiarrean dute emakumeek arriskurik handiena gizonen gehienbat egindako delituak pairatzeko. Genero-rolen esleipena dela-eta tradizioz etxeko eremura baztertu izan dira emakumeak, baina eremu horrek ez du zertan segurtasunaren sinonimoa izan, dirudienez.

Datuek baieztatu egiten dute alde nabarmena dagoela delitu-jarduerak emakume eta gizonetan duen eraginari dagokionez; izan ere, emakumeen aurkako indarkeria espezifiko bat dago, besterik gabe emakume izate hutsagatik, eta gizonen ez dute indarkeria hori jasaten. **Emakumeen aurkako indarkeriaren** fenomenoaz ari gara. EAEko herritarrak gehien kezkatzen dituen bederatzigarren arazoa da Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Publikoaren Plan Orokorraren arabera (2020-2025), delinkuentziaren eta herritarren segurtasunik ezaren atzetik.

Horregatik, bereziki garrantzitsua da datu horiek arretaz aztertzea.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren informazioaren arabera, EAEko biktimizazioen kopurua edo emakumeen aurkako indarkeria-kasuen kopurua aintzat hartuta, kasuak ugartu egin dira, oro har, 2018tik 2019ra bitartean, eta behera egin dute, ondoren, 2020an, orduko kasuak 2018koak baino gutxiago ere izanik. Bilakaera hori indarkeria mota guztietan gertatu da, familia barrukoan izan ezik, hari buruzko datuek hazkunde iraunkorra izan baitute. Erreferentziazko hiru urteak alderatuta 2020ko biktimizazioen beherakada ikusten da 2020an Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoetan. Baina Bizkaian, 2020ko guztizko datuek hobera egin arren, ez dira iritsi aurreko bi urteetan zegoen egoerara.

Taula 2. Biktimizazioak, emakumeen aurkako indarkeria motaren eta EAEko lurralde historikoen arabera

LH	Guztira			Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria			Familia barruko indarkeria			Sexu-indarkeriaren (*)		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Araba	786	846	763	599	625	557	123	166	147	64	55	59
Bizkaia	2.932	2.989	2.961	2.194	2.230	2.135	547	524	654	191	235	172
Gipuzkoa	1.597	1.683	1.552	1.181	1.231	1.122	283	318	314	133	134	116
GUZTIRA	5.315	5.518	5.276	3.974	4.086	3.814	953	1.008	1.115	388	424	347

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila

OHARRA (*): Sexu-indarkeria: Zigor Kodean sexu-askatasunaren aurkako delitutzat hartutakoak sartzen dira, familiaratik kanpokoek egindakoak.

Kopuruagatik bereziki deigarriak dira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren urteko kasuak (2019an, ezagututako kasuen edo «biktimizazio»en ia hiru laurdenak ziren), baina hemen jasotako emakumeen aurkako indarkeriaren tipologia guztietan ikusten da gizonen eta emakumeen arteko desparekotasunak dirauela.

Kontuan hartzekoa da, halaber, 2020an familiako gizonen baten aldetik (bikotekidea edo bikotekide ohi ez beste bat) indarkeria jasan duten emakumeen kopuru handia.

Semeen erasoak jasan duten adineko emakumeak edo aitek eraso eginiko neskatoak dira horiek, oro har, eta biktimizazioen % 21,1 dagozkie.

Haurren sexu-indarkeriari dagokionez, autonomia-erkidegoen arabera bereizitako daturik ez badago ere, Themis emakume juristen elkarteak egin berri duen azterlan baten ondorioetan ikusten da neskatoek eta mutikoek jasandako sexu-indarkeriaren % 98 gizonen aldetik datorrela, eta biktima gehienak (% 72), berriz, neskatoak direla⁹. Izan ere, ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak (haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoa) ¹⁰ azpimarratzen duenez, «Neskatoak, beren adina eta sexua direla-eta, bereizkeria eta eraso bikoitza pairatzen dute askotan. Horregatik, neskatoek neska izateagatik espezifikoki jasaten dituzten indarkeriak kontuan hartu behar ditu lege honek, indarkeria horiei heldu eta aurrea hartu ahal izateko, eta horrekin batera, azpimarratu behar da errespetuan eta berdintasunean hezten duen gizarte bat baino ez dela gai izango neskatoenganako indarkeria desagerrarazteko».

Era berean, garrantzitsua da kontuan hartzea **helduen aurkako sexu-indarkeriako** kasuen kopuruak gora egin duela; biktimizazio guztien ia % 8 dira kasu horiek, eta biktimak, oro har, familiaratik kanpoko emakume gazteak izaten dira. Euskal Estatistika Erakundeak EAEko Emakumeen aurkako Indarkeriari buruz egindako azken txostenean (2020ko azaroa¹¹), zeinak azken hamarkadako bilakaera jasotzen baitu, sexu-indarkeriako kasu ezagunen kopuruak gora egin duela nabarmentzen da, kasuak bikoiztu egin baitira 2010etik 2019ra (212tik 424ra).

Emakumeen aurkako indarkeriako kasu guztien goranzko joeraren azalpena izan daiteke gero eta emakume biktima gehiagok erabakitzen dutela salaketa jartzea edo, gutxienez, laguntza eske erakundeetara jotzea. Izan ere, 2019an, EAEko genero-indarkeriaren epaitegiek 5.931 salaketa erregistratu zituzten; hau da, 2018an baino % 5,2 gehiago. Hala ere, 2019ko eta 2020ko datuak alderatuz gero (IV. hiruhilekoa), ikusten da azken urte horretan % 9 baino gehiago jaitsi dela emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegietan aurkeztutako salaketan kopurua¹².

Ertzaintzak ezagututako kasuei dagokienez, 2019an beste inoiz baino hilketa gutxiago izan ziren, Euskal Autonomia Erkidegoan horiek zenbatzen direnetik, baina aurreko urtean baino biktimizazio gehiago erregistratu ziren (hildako emakume bat eta 5.518 biktimizazio¹³; 4.419 emakumeri eragin zieten horiek). Bai 2020an, bai, orain arte, 2021ean, genero-indarkeriaren ondorioz hildako emakume bana izan da EAEn¹⁴.

Segurtasun Sailak emandako azken datuei esker, biktimen eta biktimizazioen kopurua alderatu daiteke, eta horrek berresten du emakume batzuek eraso bat baino gehiago jasaten dutela urtean zehar.

⁹ Themis Emakume Juristen Elkarteak: (2020) *Erantzun judiziala haurrek jasaten duten sexu-indarkeriari*. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza, 2020. [Esteka](#)

¹⁰ <https://www.boe.es/buscar/pdf/2021/BOE-A-2021-9347-consolidado.pdf>

¹¹ EUSTAT. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko txostena. EAE. Azaroa, 2020. [Esteka](#)

¹² Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren estatistikak, autonomia-erkidegoen arabera. [Esteka](#)

¹³ Estatistikan, legez kontrako delituren bat jasan duten pertsonen kasu guztiak zenbatzen dira, baldin eta Ertzaintzak halakotzat erregistratu baditu herritarren salaketaren bidez edota dagokien atestatuaren bitartez. Adibidez, pertsona berak jasandako mehatxuengatik salaketa bat baino gehiago badago, horietako bakoitzak biktimizazio bat sortzen du.

¹⁴ Espainian genero-indarkeriaren ondorioz hildako emakumeen urteko fitxak. Genero-indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. [Esteka](#)

Taula 3. EAEko emakume biktimak eta biktimizazioak, indarkeria motaren arabera (2020)

	Guztira	Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria	Familia barruko indarkeria	Sexu-indarkeria
Emakumezko	4.177	2.892	947	338
Biktimizazioak	5.276	3.814	1.115	347

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila

Nolanahi ere, 2019tik 2020ra bitarteko biktimizazioei buruzko datuak alderatzean, portzentajezko -4,39 puntuko beherakada erregistratu da, eta eragindako emakumeen kopurua % 5,48 jaitsi da 2019koarekin alderatuta (Emakunde, 2020)¹⁵.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko azterlan guztiek diote ez dagoela emakume biktimaren profilik. Erasotzailearen profilaraz hitz egiten dute, ordea, horietako batzuek. Adibidez, biktimarekiko harremanari dagokionez, EUSTATen txostenak (2020) erakusten duenez, emakumeen aurkako lau indarkeria-kasutatik hiru bikote-eremuan gertatu ziren, batez ere harremana amaitu ondoren. Beste iturri batzuen arabera, berriz, erasotzaileen ia % 30 30 urtetik beherakoak dira, bereziki familia barruko indarkeria edo sexu-indarkeriaren kasuetan. Oso kezagarria da hori, belaunaldi berrietan eredu matxistak ez baitira ia aldatu.

Emakumeen aurkako indarkeria mota horiez gain, badira **askoz ere ikusezinago diren beste formula batzuk**; horiei buruzko hain erregistro zehatzik ez dugu, baina jarraipen berezia egin behar zaie, eta sentsibilizazio-ekintzak ere behar dira herritarren artean (adierazpen klasikoak zein beste ekintza berritzaileago batzuk). Emakunderen txostenaren arabera (2020), hauek dira:


- **Sexu-esplotazioa helburu duen emakumeen salerosketa** (EAEn prostituzioan diharduten emakumeen % 10 eta 15 artean balitekeela salerosketaren biktima izatea aurreikusten da).

Izan ere, Ertzaintzaren burutzak emandako informazioaren arabera, GZ (gizakien salerosketa) taldeak daude ertzain-etxeetan; prostituzioan aritzen diren pertsonak bereziki kalteberak direla uste da, salerosketa-sareek beren biktimak habitat horretan sartzen dituztelako. Horregatik, egoera horretan dauden pertsonak identifikatzen dituztenean, txartelak eta diptikoak banatzen dizkiete, eta dauden segurtasun-neurriak azaltzen dizkiete, ahaldundu daitezen bultzatzeko eta gogoeta eginarazteko.

Iturri beraren arabera, oso askotarikoa da EAEra iristen diren emakume horien jatorria: Afrikako zenbait herrialdeetakoak (Boli Kosta, Nigeria edo Maroko) eta Hego Amerikako herrialdeetakoak dira (Brasil, Kolonbia, Nikaragua edo Peru), baina Txinako kasu bat eta jatorri espainiarreko beste bat ere detektatu ziren. Erregistratutako biktimen kopuruak gora egin du pixkanaka azken 4 urteetan:

¹⁵ Emakunde (2020):

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/estadistikak.2020.12.pdf

Grafikoa 1. Salerosketaren biktimen kopuruaren bilakaera (*) EAEn (2015-2020)

Iturria: Ertzaintzaren Burutza

(*) Emandako erregistroetan emakumeak dira biktima guztiak, transexual gisa adierazitako genero-identitatea zuten bi izan ezik.

- **Emakumeen genitalen mutilazioak (EMG)** arriskuan jartzen ditu EAEn bizi diren gero eta neska gehiago, praktika hori duten herrialdeetatik etorritakoak. 2018. eta 2019. urteen artean soilik, Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuak 14 urtetik beherako 129 neska antzeman zituen, zeinei EMGa Euskadira migratu aurretik egin baitzieten.

Estatu osoan egin berri den azterlan baten arabera, EAEn ikusi da hazkunde erlatibo handiena, bai arriskuan egon daitezkeen emakumeei dagokienez, «% 48 inguruko gorakada izan baita 2012tik 2016ra bitartean –5.000 emakume inguru–, bai eta 0 eta 14 urte bitarteko nesken taldean ere; talde horrek % 64 egin du gora denbora-tarte berean (1.400 inguru)»¹⁶.

- **Lan-eremuko indarkeria (sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena).** Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, lan-eremuan ager daitezkeen indarkeria-adierazpen gisa, sexuan oinarritutako diskriminazio suntsitzaileenatariko bi dira, eta, aldi berean, sexu-askatasuna eta lanerako eta laneko segurtasun eta osasunerako eskubideak urratzen dituzte (Emakunde, 2016).

EBko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA) egindako Emakumeen aurkako Genero Indarkeriari buruzko 2014ko azterlanaren arabera¹⁷, sexu-jazarpenaren biktimen % 90 emakumeak dira, eta emakumeen aurkako sexu-jazarpenaren herena lanean gertatzen da.

Gaitz horren aurka borrokatzeko abian jarri diren lege- eta arau-mekanismoak gorabehera, indarkeria mota horren salaketak arazoaren zati txiki bat baino ez direla uste da. Europako Parlamentuak 2018ko irailaren 11n emandako Ebazpenak ohartarazi du lan-eremuetan gertatzen diren sexu-jazarpeneko eta jazarpen sexistako kasu asko ez direla salatzen zenbait faktoreren ondorioz; honako hauek nabarmentzen dira, besteak beste: sexu-jazarpenaren gaineko sentsibilizazio sozial eskasa, frogak lortzeko zailtasuna, salaketa-bideetara jotzeko

¹⁶ Wassu-UAB Fundazioa (2020): *Emakumeen genitalen mutilazioa Espainian*. [Esteka](#)

¹⁷ European Union Agency for Fundamental Rights: (2. erref.: Emakumeen aurkako genero-indarkeria: EBren eskalako inkesta) https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-2014-vaw-survey-at-a-glance-oct14_es.pdf

zailtasunak, biktimen jarraipen eta babes eskasa eta lan-eremu batzuetako indarkeria matxistaren normalizazioa.

- **Ziberindarkeria¹⁸**: ziberkontrola, *sextinga*, *groominga*. Neska eta emakume gazteak dira horrelakoen biktima nagusiak; agertoki berri honetan mundu birtualera eraman dira mundu errealean nagusi diren desparekotasunak.

2013an, Eusko Jaurlaritzak ikerketa kualitatibo bat bultzatu zuen ia ehun gazterekin, sare sozialetako sexismoaren adierazpena erabiltzaileen sexuaren arabera ote zen jakiteko¹⁹. Emaitzek egiaztatu zutenenez, mutilek ingurune maskulino batean onartzen zuten Internet erabiltzen zutela pornografia ikusteko, eta sare sozialak neskekin harremanetan jartzeko, argazkiak ikusteko edo ligatzeko; hau da, aisialdirako lekutzat hartzen dute esparru hori. Neskek, berriz, emakumeen artean, gaitasun handiagoa erakutsi zuten sare sozialen arriskuak onartzeko (jazarriak izateko arriskuari dagokionez, mutilek baino egoera zaurgarriagoan daudela onartzen dute), sentimenduz hitz egiten dute eta, oro har, gizarte-komunikaziorako eta lagunekin harremanetan egoteko espazio gisa erabiltzen dituzte sareak. Jokabide horiek ez ziren hain esplizituak talde mistoetan.

Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, 2020an 16.935 delitu informatiko erregistratu ziren EAEn, eta sexu-askatasunaren aurkako delituak izan ziren horietako 50 (16 urtetik beherakoekin harremanetan jartzea sexu-helburuekin; sexu-jazarpena; exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, eta adingabeen edo desgaitasuna duten pertsonen pornografia). Delitu horiei dagokienez, Ertzaintzak 44 biktimizazio erregistratu zituen, eta horien % 66k emakumeei eragin zieten.

Arriskuaren ikuspegi subjektiboago batetik, garai hartako Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak 2000. urtetik 2008. urtera bitartean **biktimen segurtasunaren edo segurtasunik ezaren pertzepzioa** jakiteko egindako inkesten emaitzek beti erakutsi dute segurtasunik ezaren sentimendua nabarmen handiagoa dela emakumeen artean gizonen artean baino. Hala, ezagutzen dugun azkeneko inkestaren arabera, emakumeen % 19,7 ez ziren «batere seguru» sentitzen bizi diren eremuan gaez bakarrik ibiltzen direnean, eta gizonen % 3,8 baino ez. Emakumeen % 58 baino ez ziren oso seguru edo nahiko seguru sentitzen egoera horretan.

2012an argitaratutako *EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxista: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna*²⁰ izeneko Eusko Jaurlaritzaren azterlanaren esparruan egindako antzeko inkesta batek EAEko emakumeen segurtasun-pertzepzioak hobera egin zuela adierazten zuen, eta emakumeen % 69 oso seguru edo nahiko seguru sentitzen ziren gaez bakarrik ibiltzean. Hala ere, datuen alderaketa tentuz egin behar da, metodologia ez baitzen antzekoa izan. Argi dago, halere, bestelakoa dela inkesta berean elkarrizketatutako gizonen pertzepzioa, gizonen % 87,1 seguru sentitzen baitira egoera horretan.

¹⁸ EIGE Genero Berdintasunaren Europako Institutua. (2016). Emakumeen eta neskatuen aurkako ziberindarkeria.

¹⁹ Estébanez, I. eta Vázquez, N.: (2013) *Genero-desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan*. Eusko Jaurlaritza, [Esteka](#)

²⁰ https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_guias/eu_def/adjuntos/pub.violencia.machista.contra.mujeres.eus.pdf

Azterlan horretan jasotzen da, halaber, gizonak eta emakumeak ez dutela pertzepzio bera bizi diren aldean delitu jakin batzuk jasatea nahiko edo oso gertagarria izatearekin lotuta. Ondorengo taulan jasotzen diren datuen arabera, emakumeak, gizonen aldean, segurtasun-ezaren pertzepzio handiagoa dute delitu mota guztietan, eta alde hori areagotu egiten da, bereziki kalean ibiltzean lapurreta jasateari dagokionez (kalea segurtasun-gabezia handieneko tokia da berriz ere emakumeentzat). Hori bai, gertakari mota bati edo beste bati ematen zaion garrantzi erlatiboari dagokionez, bat datoz gizonak eta emakumeak, eta horrek baliteke lotura izatea herritarrek oro har delitu horiek jasateko maiztasunarekin.

Taula 4. Bizi diren lekuan gertakari batzuk izateko probabilitatea nahiko edo oso handia dela uste duten pertsonen ehunekoak

	Lapurreta etxebizitzan edo lokalean	Kalean ibiltzean lapurreta jasatea	Eraso fisikoa	Lapurreta	Sexu-erasoa
Emakumezko biktimak	37,6	31,4	15,5	15,9	11,7
Gizonak	32,7	25,1	12	11,5	8,6

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna, 2012.

Azkenik, EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuen txostenak (Emakunde, 2020) ere jasotzen du emakumeen aurkako indarkeriaren arazoaren gainean herritarrek duten kezka. Pertzepzioari buruzko azken barometroen arabera, EAEko herritarren % 17,4k adierazten dute arazo nagusietako bat dela hori.

- **Delitutik babesten duenaren ikuspegia:**

Polizia-zerbitzuak:

Alde handiak daude pertsonen eta haien ondasunen segurtasuna zaintzeko ardura duten polizia-kidegoetan emakumeak eta gizonak duten presentziari dagokionez.

Ertzaintzak Segurtasun Saileko Genero berdintasunerako Unitatearen bidez emandako datuak (2020ko abenduaren 31ra artekoak) aintzat hartuta, 7.361 langile daude guztira, eta emakumeak % 14,5 dira.

Zer lanpostu mota eta jardun-kategoria dituzten begiratuz gero, gutxiengoa dira oraindik emakumeak goi-mailako kategorietan (segregazio bertikala), eta ez dira % 10era ere iristen goi-mailako eskalan, betearazpen-eskalan eta ikuskapen-eskalan.

Taula 5. 2020-12-31n jardunean dauden ertzainen kopurua, eskalaren eta jardun-kategoriaren arabera, sexuaren arabera

Ertzaintzaren zerbitzupeko langileak, eskala eta kategorien arabera (2020)	Guztira	Emakumeak	Gizonak	E (%)
GOI-MAILAKO ESKALA	24	1	23	4,17
Intendentea	24	1	23	4,17
BETEARAZPEN-ESKALA	144	9	135	6,25
Komisariaoa	64	6	58	9,38
Komisariordea	80	3	77	3,75
IKUSKARITZA-ESKALA	648	58	590	8,95
Ofiziala	267	25	242	9,36
Ofizialordea	381	33	348	8,66
OINARRIZKO ESKALA	6.526	995	5.531	15,25
Agentea	5.491	876	4.615	15,95
Agente lehena	1.035	119	916	11,50
FAKULTATIBOAK ETA TEKNIKARIAK I	18	3	15	16,67
Musikaria	16	3	13	18,75
Artxibozaina	1		1	0,00
Bandaren zuzendariordea	1		1	0,00
FAKULTATIBOAK ETA TEKNIKARIAK II	1	1		100,0
Bandaren zuzendaria	1	1		100,0

Iturria: Emakumea Ertzaintzan 2020-12-31n txostena

Aurretiko azterlanen arabera, Ertzaintzaren zerbitzupeko langileen lehen promozioan izan ezik²¹, emakumeek Ertzaintzara sartzeko egin dituzten eskaerak VIII. promozioiko % 12,28tik XXI. promozioiko % 32,36ra bitartean izan dira. Honako hau egiaztaturik dago: «sartzeko orduan unibertsitate-ikasketak bezalako merezimenduak kontuan hartzen badira edo taldearen berriazko aipamenik egiten bada, beren presentzia igo egiten da»²². Eskura ditugun azken datuek –2020. urtearen amaierakoek– adierazten dutenez, Ertzaintzako promozioetan parte hartutakoen artean % 12,88 izan dira emakumeak²³.

Gainera, are genero-arrakala handiagoa ere hauteman da Udaltzaingoetan; izan ere, Segurtasun Sailaren Berdintasun Planaren 2018ko datuen arabera, langile guztien % 11,46 baino ez ziren emakumeak polizia-kidego horretan. Hala, ez dute ordezkartzarik eskalako goi-mailako postuetan, eta komisariorde 1, 2 ofizial eta 7 ofizialorde baino ez daude; alegia, % 7 baino gutxiago dira emakumeak lanpostu horietan.

Segurtasun pribatuko zerbitzuak:

Alde batetik, **Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Segurtasun Pribatuko Zerbitzu bat** du, pertsonak askotariko egoeretan babesteko, baina neurri handi batean indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eragiten die, batez ere arriskuaren balorazio handiena duten kasuei erantzuteko. Sail bereko iturrien arabera. 2021eko maiatzean, zerbitzu hori 89 gizonak eta 2 emakumek ematen dute.

²¹ 1981ean deitutako lehen promozioan, ezinbesteko baldintza zen zerbitzu militarra beteta izatea, eta emakumeak *de facto* baztertua geratu ziren horrenbestez. Hurrengo hiru deialdietan (1982-1983), baldintza hori kendu eta emakumearen sarrera mugatua onartu zen: % 10 bigarren deialdian eta % 15 hirugarrenean eta laugarrenean.

²² Edurne González Torre: *Emakumearen egoera Ertzaintzan*, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia, 2011.

²³ *Emakumea Ertzaintzan 2020-12-31n*.

Horrez gain, **segurtasun pribatuaren sektorean diharduten enpresa pribatu**ei dagokienez, gizonen aldeko desoreka argia dago. Hala, Segurtasun Zerbitzuen Konpainia Pribatuen Elkarteak (APROSER) Espainiako segurtasun pribatuaren sektoreari buruzko 2018ko datuak jasotzen dituen azken txostenean adierazi duenez, jarduera horretan 100.000 pertsona inguru aritzen dira, eta horietatik 81.000 segurtasun-zaintzaileak dira (gainerakoak administrazio-, logistika-langileak eta segurtasun elektronikoan eta alarmetan espezializatutako langileak dira). Tradizioz gizonak nagusi diren lanbidea izan arren, gaur egun segurtasun-zaintzailearen lanbidean aritzen direnen % 13 emakumeak direla aurreikusten da (10.000 emakume inguru). EAEn segurtasun pribatuko 75 enpresa daude, eta Espainian kontratatutako langile guztien % 4,28 biltzen dituzte²⁴ eta²⁵.

Arlo sektorial horretan lan egiten duten pertsonen artean emakumeak gutxi izatea lotuta dago, segur aski, lanbide arriskutsua delako ideiarekin. Sektore horretan ere antolatzen hasi da emakumeen elkarte-mugimendua, eta, horregatik, Segurtasunaren, Defentsaren eta Larrialdien arloko Emakumearen Nazioarteko Foroa eratu da, nolabaiteko ibilbidea duten Espainiako eta Latinoamerikako emakume profesional eta ekintzaileak biltzen dituen diziplina anitzeko plataforma gisa. Foroaren helburua da antolaketa-eredu inklusiboa eta malgua eskaintzea, emakumeek eremu horietan duten potentziala aitortzeko eta ikusarazteko.

²⁴ *Segurtasun Pribatuaren sektoreak emakumeak duen eginkizunari buruzko lehen jardunaldien ondorioak (2019)*. [Esteka](#)

²⁵ APROSER (2018): *Segurtasun pribatuaren sektorea Espainian: zifra eta datu garrantzitsuenak, 2018*. [Esteka](#)

2.2 BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

- **Hiri seguruetan bizitzeko eskubidea:**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005) hau ezartzen du 46. artikuluko –Ingurumena eta etxebizitza– 1. apartatuan:

«Euskal herri-aginteez beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: **pertsonen segurtasuna**; etxeke lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere».

2.1 atalean azaldutako adierazleek erakutsi dutenez, emakumeek, gizonen aldean, neurri handiagoan hautematen dute eremu publikoa ez dela segurua, eta horrek, gutxienez ere, mugatu egiten die aurrez aurreko zerbitzu edo baliabide jakin batzuen bila lasaitasunez joateko orduan.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn izeneko azterlanak (Eusko Jurlaritzak, 2012) adierazten zuen jada zenbait proiektu zeudela «Beldurraren mapak edo hiri debekatuaren mapak» izenekoak adibidez, EAEn zenbait udalerritan leku kritikoak identifikatzeko, hau da, gune beltzak edo emakumeek arriskutsutzat jotzen dituzten guneak (argiztapenik ez dutelako, edota zoko-mokoak edo tunelak daudelako edo jende gutxi dabilen eremuak direlako, etab.), arrisku objektiboa gorabehera segurtasunik ezaren pertzepzio hori ahalik eta txikiena izan dadin. Informazio hori aintzat hartuta, Eusko Jurlaritzak hiru lurralde historikoei buruzko hiri-analisirako eskuliburu interaktibo bat argitaratu zuen.

Genero-ikuspegia duten hirigintzako joerek gero eta gehiago hartzen dute kontuan segurtasuna hobetzea; askotarikoak dira hobekuntza horiek, hala nola argi gehiago jarri eta oztopoak kentzea ikusgarritasuna handitu eta, horrela, sexu-erasoak eragozteko, bai eta «segurtasun pasibo»ko mekanismoak ere (adibidez, eraikinetan hutsik dauden etxabeetako eremu komunak auzo-zerbitzu partekatuen espazio gisa egokitzea)²⁶.

Horretarako, BULTZATU 2030erako Euskadiko Hiri Agendak hirien segurtasuna ezartzen du lehentasun tematikoen artean, espazio publikoetan zehazki. Hirien gobernantzan hiriguneen segurtasuna modu eraginkorragoan kudeatu behar dela uste da, ingurunea bertako biztanleen bizi-kalitatearen zerbitzura egon behar baita. Testuinguru horretan, teknologia aliatu bihurtu behar da; hori horrela, hipergardentasuna lortu behar dute herritarrek hari esker, bai eta datifikazioa ere, interkonexioak ez ezik, datuak jasotzeko eta gertakarien aurrean erantzuteko gaitasun handiagoa ahalbidetzeko. Helburua hirigintza integratzaile eta segurua sustatzea da, horretarako gune beltz gatazkatsuak kenduz eta datuek azaleratzen dituzten beharrez baliatuz ingurunean jarduteko.

²⁶ Eusko Jurlaritzak - Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. BULTZATU 2050. Euskadiko Hiri Agenda. [Esteka](#)

Helburu horrekin, Euskadiko Hiri Agendak genero-ikuspegia txertatzen du, eta onartzen du berdintasunezko hiriak izateko gakoa emakumeek espazio publikoan segurtasuna hautematea dela, emakumeek gizartean eta ekonomian parte hartzen dutela bermatzeko. Emakumeak eta neskatoak ahalduntzeko beharra dago ikuspegi horrekin batera, Agenda 2030ek Garapen Jasangarrirako Helburuen artean ezarritako 5. helburuaren barruan.

- **Garraio publiko segurua:**

Garraio publikoaren segurtasuna bermatzean datza, orobat, hirietako ongizatea. Hiri eta Komunitate Jasangarriei buruzko 2030 Agendaren 11. helburuak garraio seguru, eskuragarri, irisgarri (batez ere landagunean) eta jasangarrien sistemetakoko sarbidea sustatzen du, eta emakumeen beharrei arreta berezia eskaintzea.

Emakumeek garraio-zerbitzuetan segurtasunaren pertzepzio hobea izaten laguntzen duten hainbat neurri nabarmendu behar ditugu hemen, hala nola «jazarpenaren aurkako» gaueko busa, zeinak eskariaren arabera geldialdiak egiten dituen (adibidez, Bilboko Udalaren autobus-linean). Ezagunak dira, halaber, lurpeko aparkalekuak eraldatzeko neurriak, hala nola plazak hobeto argiztatzea, emakumeentzako plazak paratzea, edota «taxi arrosa» izeneko ekimena; zerbitzu horretan emakumeak dira gidariak, eta emakumeek baino ezin dute erabili. Helburua, kasu guztietan, emakumeen arrisku espezifikoak murriztea da; izan ere, inkestetan lehen ikusi bezala, emakumeek, gizonen aldean, beldur handiagoa diote bakarrik eta gauez ibiltzeari²⁷.

- **Zigorrak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua (ZKEZ)**

Zigorrak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua (ZKEZ) Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu publiko bat da, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren mendekoa.

2013az geroztik, gure erkidegoan zaintzen du EAEko epaitegi eta auzitegiek ezarritako **gizartearentzat lan egiteko zigorrak** eta **zigorra betearazteko ordezeko moduak** (askatasunaz gabetzeko zigorren eteteak eta zigorren ordezteak) benetan betetzen direla. ZKEZk bere gain hartzen ditu lehen Atxilotuari Laguntza Emateko Zerbitzuak eta Gizarteratzeko Laguntza Zerbitzuak egiten zituzten zereginetako batzuk.

Eskura dagoen azken memoriaren arabera (2019), ZKEZk 4.422 pertsonari eman zien arreta; horietatik % 87,22 gizonak izan ziren, eta % 12,78, emakumeak. Zerbitzu horretako plan moten arabera, emakumeak izan ziren gizartearentzako lanak egin zituzten pertsonen % 13,3; bide-segurtasuneko delituengatik lantegietan parte hartu zutenen % 9,6; mendekotasuna gainditzeko tratamenduetan parte hartu zutenen % 9,7, eta osasun mentaleko tratamenduetan parte hartu zutenen % 16,3.

²⁷ De Gregorio, Sonia: BULTZATU 2050. Genero-ikuspegidun hiri-berronartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri-Agendaren esparruan. [Esteka](#)

- **Etxeko indarkeriaren nahiz sexu-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzu espezializatuak**

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak emandako zerbitzuen laburpena da; zerbitzu horietako asko modu integratuan edo Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin koordinatuta (Segurtasuna, Hezkuntza, Osasuna, Lana eta Enplegua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak). Horietako bi nabarmenduko ditugu hemen:

- EAEn bizi diren eta genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa, baliabide ekonomiko nahikorik ez badute eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak badituzte.
- Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzua: Telefono bidezko arreta-zerbitzua, emakumeen aurkako indarkeria mota guztietan espezializatutako profesionalak ematen dutena; biktimei eta haien senideei edo hurbilekoei laguntzen die.

- **Delituen biktimei laguntza juridikoa eta asistentzia emateko zerbitzuak:**

BLZ edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzua doako baliabide espezializatu, boluntario eta unibertsal bat da, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren mendekoa, eta biktimei zigor-sistemarekin duten harremanean laguntzea du helburu nagusi, banakako arreta baten bidez, biktimizazio bikoitza eragozteko eta esperientzia traumatikoa gainditzeko tresnak emateko.

Gutziz deigarria da zerbitzu horien erabiltzaile gehienak emakumeak izatea. 2019ko Memoriako datuen arabera, emakumeak joan dira gehienbat zerbitzu horretara (zehazki, 2019an BLZn artatutako 2.694 pertsonetatik % 80,70 emakumeak ziren), eta artatutako 3.193 biktimizazioetatik ugarienak genero-indarkeriarekin lotutakoak izan ziren –hau da, emakumeen aurkako indarkeria, besterik gabe emakume izateagatik, hainbat eremutan (bikotekide edo bikotekide ohiaren aldetik, lanean, familian, etab.)–.

Hala, urte horretarako erregistratutako delituen biktimizazio-kausen arabera, honela sailkatzen dira BLZn artatutako biktimizazioak:

Taula 6. BLZk 2019an izapidetutako espedienteak, delitu motaren eta biktimaren sexuaren arabera (%), 2019

GUZTIRA	Genero-indarkeria	Familia barruko indarkeria	Pertsonen aurkako delituak	Ondarearen aurkako delituak	Sexu-askatasunaren aurkako delituak	Beste delitu orokor batzuk
3.193	1.583	777	336	100	261	136
Emakumeak (%)	% 99,17	% 60,01	% 58,03	% 65,00	% 86,59	% 66,91

Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzuari buruzko 2019ko memoria. Lan eta Justizia Saila.

Datu horiek ez datoz bat lehen adierazitakoarekin, hau da, urte horretan bertan Ertzaintzak ezagututako delituengatik biktimizazioen % 52k gizonari eragin izana. Segur aski, estereotipo eta rol sexistek giza jokaeretan duten eraginak azaltzen du alde hori; izan ere, horien arabera, emakumeak sexu «ahula» eta babesari –kasu honetan, erakundearen babesari– behar duten biktimak dira, eta gizonak, aldiz, laguntzarik behar ez duten izaki sendo modura agertzen dira; hauen kasuan, gainera, laguntza eskatzea ahuleziatzen eta gizontasun gutxiaren jokabideak har daitezke.

- **Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen polizia-babesari emateko zerbitzuak:**

Halaber, etxeko tratatu txarren eta sexu-eraburuen biktima diren emakumeen babesari dagokionez, aipatutako Euskadiko Berdintasunerako Legeak (4/2005 Legea) honako hau bermatzen du Poliziaren Babesari buruzko 54. artikuluan:

«Euskal herri-administrazio eskudunek prestakuntza espezializatua eman behar diete emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren laguntzeko eta babesari emateko dauden poliziako kideei. Era berean, beharrezko prestakuntza eta baliabideak emango dizkiete euskal poliziei emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan esku hartzerakoan eraginkortasunik handiena lortze aldera, eta, bereziki, etxeko tratatu txarren biktima diren babesari onartzen diren neurri judizialen betearazteari eta kontrolari dagokionez. Horren guztiorren helburua, hain zuzen, biktimen segurtasuna bermatzea eta biktima horiek, beren borondatearen aurka, beren etxebizitzak utzi behar izatea saihestea da».

Horri dagokionez, Euskadiko **2020-2025erako Segurtasun Publikoko Plan Orokorra** adierazten du Ertzaintzak etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren kasuak artatzeko prozesu bat duela, UNE-EN ISO 9001:2015 Arauaren arabera ziurtatua, eta askotan aintzat hartua izan dena, eta 2011z geroztik, Ertzaintzak babestutako emakume bat ere ez dutela hil.

Ertzaintzak, 2016az geroztik, Sexu-esplotazioa Helburu duen Giza Salerosketaren aurkako Plan Estrategiko bat ere badu, fenomenoaren prebentzioan, biktimen babesari eta nagusiki emakumeek jasandako delitu baten jazarpenean oinarritzen dena. EAEko lurraldean prostituzioan diharduten pertsonentzako segurtasun-neurriak ere baditu. Bere [webgunean](#) iragartzen dira neurri horiek.

- **Segurtasun Sailaren 2020erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa:**

Baliabideak eskuratzeari buruzko atal hau amaitzeko, aipatu behar dugu Sail horren [dirulaguntzen azken planean](#) laguntzak daudela Ertzaintzako langileek segurtasun publikoko profesionalen arteko adiskidetasuna sustatzen duten jokoetan parte har dezaten bultzatzeko (polizien eta suhiltzaileen artean, alegia), eta sasoi egoki atxikitzen dutela sustatzeko, beren lanbide-eremuan errendimendu eta segurtasun handiagoa izan dezaten.

- **Jokoarekiko adikzioek eragindako arriskuen prebentziorako baliabideak:**

Segurtasun Sailak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei dirulaguntzak emateko urteko programa bat du, ludopatia eta haren arriskuak prebenitzen eta prebentzio- eta errehabilitazio-proiektuak egiten laguntzeko. Jokoaren Euskal Behatokiaren ikerketa-programarako laguntzak ere badaude, EHUrekin batera.

- **Emakumeen genitalen mutilazioaren arretarako eta prebentziorako baliabideak:**

EAEEn, EMGaren kasuak antzemateko eta horietan esku hartzeko jarduera-gida bat dago²⁸. Era berean, erakundearteko batzorde bat dago, non osasun, gizarte-zerbitzu eta hezkuntzako profesionalak parte hartzen duten, baina ez du ez polizia, ezta adingabeen babes judiziala ere barne hartzen. Izaera prebentiboa du gehienbat²⁹.

- **Beste baliabide batzuk:**

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren azterlan batek ezagutarazitakoaren arabera³⁰, adimen- edo garapen-desgaitasuna, entzumen-desgaitasuna eta gor-itsutasuna duten emakumeen % 10,4 ez dira pairatutako genero-indarkeria salatzerantz joaten segurtasun-kidegoekin eta epaitegiarekin erraz komunikatzeko modurik ez dutelako. Horregatik, azterlan horretan proposatzen da biktimen arretarako zentroetan zeinu-hizkuntzaren interpreteak eta gaitasun desberdinak dituzten pertsonekin bitartekari-lana egiten duten profesionalak izatea, emakume biktimek babes egokia jaso ahal izan dezaten.

²⁸ Eusko Jaurlaritzak. Emakumeen genitalen mutilazioa. Euskadiko osasun-sisteman gomendatutako jardunen gidaliburua, 2016. [Esteka](#)

²⁹ Wasu-UAB Fundazioa (2020) aipatutako lana.

³⁰ Castellanos, Esther: *Emakumea, desgaitasuna eta genero-indarkeria*, Genero-indarkeriarako Gobernu Ordezkaritzarentzat, 2020. [Esteka](#)

2.3 EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

Segurtasunaren sektoreko jardueretan, publikoan zein pribatuan, emakume gutxiago egoteaz gain, horri gehitu behar zaio desparekatasunak ere badaudela era horretako babes-zerbitzuetan emakumeek betetzen duten eginkizunari dagokionez.

- **Segurtasun Saila:**

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren barruko erantzukizuneko karguen egiturari dagokionez, nahiz eta legegintzaldi honetako osaera, oro har, parekidea izan (7 emakume eta 7 gizonen osatzen dute), nabarmentzekoa da, batetik, gizon batek betetzen duela maila goreneko postua; sailburu (eta lehendakariorde) gisa, alegia; eta bestetik, Segurtasun Sailburuordetzari dagokionez (gizon batek ere betetzen du postu hori), 5 zuzendaritza nagusietan emakume bakarra dagoela.

Taula 7. Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko Sailaren osaera (2021)

Karguak	G	E
Lehendakariordea eta Segurtasuneko sailburua	1	
Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren Kabinete Zuzendaritza		1
Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren Komunikazio Zuzendaritza		1
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza		1
Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritza		1
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza	1	
Giza Baliabideen Zuzendaritza		1
Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko Zuzendaritza		1
Segurtasun Sailburuordetza	1	
Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza	1	
Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza	1	
Trafiko Zuzendaritza		1
Ertzaintzaren Zuzendaritza	1	
Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza	1	

Iturria: Segurtasun Sailaren [webgunea](#).

2.1 atalean adierazi bezala, **Ertzaintza**ko langileen banaketaren kasu zehatzean segregazio horizontala ere badago; izan ere, emakumeak plangintza, koordinazioa, administrazio-prozedurak izapidetzea, ikerketa eta kudeaketa eginkizun nagusitzat dituzten unitateetan daude, eta gizonak dira nagusi, ordea, babesteko eta baliabide operatiboen arloko eginkizun espezifikoak dituzten unitateetan.

Urteetan zehar, 1981ean segurtasun-kidego hau sortu zenetik, ahaleginak egin dira langileen artean emakumeen kopurua handitzeko, hala diskriminazio positiboko neurrien bitartez, nola emakumeak sar zitezen bultzatuz eta sustatuz.

Segurtasun Sailaren oraingo estrategiak bere gain hartzen du sexismoaren aurka borrokatzeko eta desparekotasunak desagerrarazten laguntzeko erronka. Horretarako, PLEarekin lankidetzan, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2018-2021)**³¹ egin da, eta honako programa hauek jasotzen ditu: Gobernu ona; berdintasunerako trebakuntza; genero-ikuspegia lan-prozeduretan; koordinazioa eta lankidetzatza, eta parte-hartzea eta eragina. Herritarren segurtasunaren esparruan, honako hauek hartu dira kontuan: hautemandako segurtasunarekin lotutako gaiak; emakumeen aurkako indarkeria-delituak, eta emakume gehiago sartu beharra Ertzaintzan, Udaltzaingoetan eta etxeko indarkeriaren (EI) edo genero-indarkeriaren (GI) biktimei laguntzeko Sailean dauden beste baliabide batzuetan.

Progresiboki hobetzeko testuinguru horren barruan, halaber, ekainaren 27ko 7/2019 Legea (**Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketarena**) onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Berdintasuneko neurriak eta emakumeak polizia-kidegoetan sar daitezen sustatzea jasotzen da lege horretan³². Ondorengo uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzekoan³³, honako neurri hauek zehaztu ziren:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeak presentzia paritarioaren printzipioa beteko du (17. artikulua).
- Berdintasuna sustatzen da segurtasun-zerbitzu publikoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuz (43. artikulua) eta berdintasun-planak eta emakumeak sartzea sustatzeko planak eginez (44. art.).
- Xedapen Orokorretan berdintasunaren aldeko neurri batzuk zehazten dira (66. art.) hautaketa-prozeduretan eta, era berean, emakumeek hautaketa-organoetan eta epaimahaietan parte hartzea ere babesten da (67. art.).

Ertzaintzaren kasu zehatzean, erakundearen prozesu guztietan txertatuta dago genero-ikuspegia, **Ertzaintzaren 2017-2020 Plan Estrategikoaren**³⁴ zati modura. Ildo horretatik, haren berdintasun-politikaren esparruan honako ekintza nagusi hauek ageri dira:

- Berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren inguruko etengabeko formakuntza eta sentsibilizazioa, portaera-ereduak aldatzeko helburuarekin.
- Emakumeek Ertzaintzan presentzia handiagoa izatea sustatzeko kanpainak eta jarduerak egitea, eta epe erdira arautzea emakumeen presentzia hori sustatzeko planak, kidegoan sartzeko eta karrera profesionalean aurrera egiteko aukera-

³¹ <https://www.ertzaintza.eus/lfr/documents/62347/823408/SEGURTASUN+SAILEKO+EMAKUME+ETA+GIZONEN+BERDINTASUNERAKO+PLANA%2C+2018-2021.pdf/c08cd852-bbb7-e9a9-461f-13e437708808?t=1575384401373>

³² <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2019-10597>

³³ https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2020-9740

³⁴ <https://www.ertzaintza.eus/lfr/eu/web/ertzaintza/plan-estrategico>

berdintasuna bermatzeko, egungo ordezkaritza txikia zuzentzeko eta polizia-eraginkortasuna areagotzeko.

- Hizkuntza inklusiboa eta komunikazio-elementu ez-sexistak erabiltzea komunikazioetan eta antolatzen dituen ekitaldietan.
- Interes aipagarria duten alderdiak identifikatzea, azterlanen bidez genero-erregimenetan eragina duten gaiak, barnekoak zein kanpokoak, aztertzeko, eta hauei buruzko gaietan sakontzeko: erantzunkidetasuna, kategoriaz igotzeko ikastaroetan edo espezializaziokoetan merezimenduak baloratzea, lanpostuen esleipena, lidergo-ereduak, herritarrak inbrikatzen dituzten prozesuak, etab.
- Estatuko nahiz nazioarteko polizia-lankidetzarako esparruetan parte hartzea, eta berdintasuna eta aniztasuna sustatzen duten erakundeekin itunak ezartzea.

Emakumea Ertzaintzan 2020-12-31n txostenak datu interesgarri bat ematen du: ordutegi-erregimenari dagokionez, gizonen % 11,42k ordutegi-erregimen espezifikoak dute, baina emakume ertzainen % 2,53k baino ez; emakumeen % 21,46k, berriz, ordutegi malguak dute, baina gizonen % 15,48k bakarrik, eta, ustez, malgutasun horrek familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarriago egiten laguntzen du.

Azken batean, azken helburua da gizarte bidezkoago, berdintasunezkoago eta askotariago batean aurrera egitea, eta horretan biek ala biek irabaztea, hala Ertzaintzak nola polizia-erakundeak tratu-berdintasunean eta dibertsitate eta ezberdintasunarekiko errespetuan oinarrituta zerbitzua ematen dion euskal gizarteak.

- **Kide anitzeko organoetako partaidetza**

Segurtasun Saileko Genero Berdintasunerako Unitateak 2021eko maiatzean emandako azken datuen arabera, gizonak ziren haien kide gehienak.

Taula 8. Kide anitzeko organoetako kideen osaera, sexuaren arabera

Organoak	Guztira	G	E	E (%)
Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseilua	22	16	6	% 27,27
Ertzaintzaren Kontseilua	11	10	1	% 9,09
Bide Segurtasuneko Batzordea	33	21	12	% 36,36
Euskadiko Babes Zibilerako Batzordea	19	17	2	% 11
Babes Zibileko Boluntariotzako Aholku Batzordea	36	30	6	% 20
Jendaurreko Ikuskizunetarako eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseilua	23	14	9	% 39,13
Bideozaintza eta Askatasunen Batzordea	7	5	2	% 28,5
Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea	13	11	2	% 15,38
Segurtasun Pribatuko Batzorde Mistoa	24	18	6	% 25
Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuetarako Erakundeen arteko Batzordea (*)	35	24	11	% 31
Euskadiko Zezenketa-gaien Batzordea	14	13	1	% 7,14

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila, 2021eko datuak, 2019koak izan ezik (*).

Aurreko datuetan ikus daitekeenez, Sailean dauden kide anitzeko organoetako batzordeetako bakar batek ere ez du osaera paritariorik.

2.4 GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Generoarekin lotutako gizarte-arau eta balioek azaltzen dituzte emakumeen eta gizonen artean, pertsonen segurtasunari lotutako faktoreei dagokienez, dauden desberdintasunak eta desparekotasunak.

Horrela, indarkeriaren erabilera, gertakari sozial gisa, eta gizonezkoen nortasunaren eraikuntza estuki loturik daude. Hau da, gizon izaten –emakume izaten bezala– ikasi egiten da, eta familian, eskolan, erlijioetan, komunikabideetan eta abarretan irakasten den lehen ikasgaietako bat da ikaskuntza hori, sozializazio-prozesua deritzonaren esparruan; prozesu horren bidez, pertsonak bizikidetzara arautzen duten arau eta balio kolektiboak barneratzen, ulertzen eta onartzen dituzte. Prozesu hori guztiz eraginkorra da berezko zerbait bailitzan ikusten delako, ezarritako arauak betetzen dituen saritu, eta betetzen ez dituen zigortu edo baztertzen delako eta, sexuaren arabera bereizketak eta ñabardurak egiten badira ere, pertsona ororentzat unibertsala delako.

Indarkeria, ordea, askoz gehiago agertzen da gizonezkoen sozializazio-prozesuan emakumeenean baino. Estatuan nerabeekin egin berri diren azterlanen arabera, adin horietan ere badirau emakumeen aurkako indarkeriaren azpian dagoen **nagusitasun-eta mendetasun-mentalitateak**; izan ere, mutilen % 18ren eta nesken % 4,5en iritziz «justifikatuta dago zurea dena kendu dizunari eraso egitea» eta «zuzena da iraindu zaituena jotzea» (% 13,5 eta % 4, hurrenez hurren). Azterlanean azaltzen den bezala, estereotipo maskulino tradizionalarekin lotura estua duten sinesmenak dira, eta indarkeria mota desberdinak eragin ditzakete, emakumeen aurkako indarkeria barne, irain edo eraso bat jaso dutela hautemanetz gero (Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza, 2021) ³⁵.

Gainera, inguruko helduek aholku ezberdinak ematen dizkiete oraindik mutilei eta neskei, eta horietan indarkeria eta bikote-harremanak lotzen dituzte. Adibidez, galdetutako nerabeen ia % 22k «jeloskortasuna maitasun-adierazpen bat da» bezalako mezuak jaso dituzte, baina neskek batez ere, eta maizago ere jasotzen dituzte honelako mezuak: «emakumeak ez dio aurka egin behar maite duen gizonari».

Azterlan berean adierazten zuten, halaber, mutilen % 5,4 eta nesken % 1,3ren iritziz «aita ona izateko, familia osoari argi utzi behar zaiola norik agintzen duen». EAEn aurretik egindako beste azterlan batzuek ere berretsi dute ideia hori nerabeen % 13,4ri dagokienez. Batere ados ez dauden eta oso ados daudenen arteko eskala batean (1etik 5era bitartean), mutilen batez besteko puntuazioa 2,4 da, eta neskena, berriz, 1,8.³⁶

Batzuen eta besteen arteko alde horiek azaltzeko, kontuan hartu behar dugu, batetik, gizonei dagokienez espero izaten dela sendoak, burujabeak, gogorrak, ausartak, oldarkorrak, sentiberatasun gutxikoak, «limurtzaileak» eta sexualki gogotsuak izatea, eta bestetik, gizonezkoen eginkizun nagusi gisa ematen zaiela familiako babesaren eta ekonomia-baliabideen hornitzailea eta esparru publikoetako protagonista izatea, bai eta boterea erabiltzea ere. Indarkeria oso baliabide eraginkorra da boterea eskuratu eta mantendu ahal izateko; horrek argi azaltzen du gizonen sozializazioan duen nagusitasuna, edota horietako batzuen artean guztiz barneratu eta zabalduetako gaia

³⁵ Díaz-Aguado, María José: *Emakumeen aurkako indarkeriaren egoera nerabezeroan*, 2021. [Esteka](#)

³⁶ Adingabekoei balioak transmititzea. Txosten berezia. Arartekoa. 2009. [Esteka](#)

izatea, emakumeen aurka edo beste gizonetako batzuen aurka erabiltzeko, bai eta beren buruen aurka erabiltzeko ere (droga gehiegi kontsumitzea edo suizidioa bezalako norberaren kalterako jokabideen bitartez, esate baterako, horiek guztiak askoz gehiago gertatzen baitira gizonen artean)³⁷.

«Kiroletan eta zineman, literaturan nahiz gerran, gizonen indarkeriazko ekintzak edo eraso bortitzak (kasu honetan, beste gizon batzuen aurkakoak normalean) goraiatu egiten dituzte. Indarkeria onartu ez ezik, glamourrez bete eta saritu ere egiten da. Gizarte patriarkalen sustrai historikoan dago, hain zuzen, indarkeria bitarteko nagusi modura erabili izana gizabanakoen, pertsona taldeen edo, geroago, nazioen arteko tirabira eta desadostasunak konpontzeko)³⁸.

Gizonetakoek haurtzarotik ikasten dute indarkeria erabiltzen eta horretan erabakigarriak izaten dira mutikoen jolas eta jostailu bortitzak. Horrezaz gain, «kultura askotan mutikoak borroken, zigorren eta basakeriako esperientziekin hazten dira. Batzuentzat, biziraupen soilak indarkeria jokaera-arau gisa onartzea eta barneratzea eskatzen du)³⁹.

Horregatik guztiagatik, ez da harrizkoa gizonak gehiegizko ordezkari izatea kriminalitateari buruzko estatistiketan, biktima gisa baina, batez ere, biktimagile gisa, eta gizonak izatea alde handiz segurtasun-indar eta -kidegoetan parte hartzen dutenak, horietan baitatza funtsean indarkeriaren erabilera instituzional eta legitimoa; hala ere, egia ere bada, azken alderdi horri dagokionez, polizia-kidego batzuetan, Ertzaintzan kasu, duela urte batzuetatik saiatzen ari direla, alde batetik, emakumeek duten ordezkari txikiari aurre egiten, sartzeko eta sustapen profesionaleko deialdietan ekintza positiboko neurriak hartuz, eta beste alde batetik, polizia-eginkizuna indar fisiko eta errepresioa erabiltzera mugatzen duen estereotipoa deuseztatzen eta gertutasuneko polizia sustatzen, «herritarren segurtasunik ezeko sentipena ezabatzeko, polizia-eskumenez jakin ez, dituen arazoak konpon ditzaten baino ez baitute behan)⁴⁰. Joera horren egungo isla bat jasota dago Ertzaintzak bere web-orrian jakinarazten duen berdintasun-politikan eta lehen aipatu dugun Segurtasun Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean (2018-2021).

Indarkeriaren erabilera ez da funtsezko elementu bat, ordea, emakumeen sozializazio-prozesuan. Emakumeei, batez ere, zainketa-lanen eta ugalketaren arduradun nagusi izatearen eginkizuna dagokie; esparru publikoarekin zerikusia duten arlo guztietan, bigarren mailako eta gizonaren mendeko zereginak beteko dituztela uste da, eta, horrez gain, atseginak, eskuzabalak, erakargarriak, agindupekoak, pasiboak, pairakorrek, otzanak, etab., izango direla. Izan ere, sexu ahultzat jotzen dira, gizonak babestu beharrekoak.

Amek jasandako indarkeriaren eraginpean egon diren emakume biktimen seme-alaba adingabeetan aztertu da genero-indarkeria ezagutu edo ikusteko sentsibilitatea.

³⁷ Estatuan, 2005ean, gizonak ziren droga-kontsumoaren ondorioz hildakoen % 86, eta EAEn, berriz, gizonak ziren 2010ean beren buruaz beste egin zuten pertsonen % 81. Drogen kontsumoan emakumeen eta gizonen arteko aldeak murrizten ari badira ere, oraingoz kontsumo-adierazleak handiagoak dira gizonen artean, Eusko Jaurlaritzaren 2017-2021 aldirako Adikzioei buruzko Euskadiko VII. Planean jasotakoaren arabera. [Esteka](#)

³⁸ L. Kaufman Michael: *Las 7 P's de la violencia*, Toronto, 2. or., 1999. [Esteka](#)

³⁹ Idem, or. 5

⁴⁰ Ertzaintza Berrantolatu eta Modernizatzeko Plana, 2010, 19. or. [Esteka](#)

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren (2020) ⁴¹ beste azterlan baten arabera, sentsibilitate hori askoz handiagoa da nesketan mutiletan baino (% 24,1 eta % 14,1, hurrenez hurren); alde hori bikoiztu egiten da indarkeria horren eraginpean dauden adingabeen artean (hau da, tratu txar horiek zuzenean jasan dituztenen artean). Baina, gainera, indarkeria bertatik bertara bizi izan duten neskek gehien identifikatzen diren balioen artean honako hau dago: «bikote ideala» izatea gizonak emakumea babesten duen hori. Era berean, uste da genero-indarkeriarekiko esposizioak laguntzen duela pentsamolde sexista eta indarkeria justifikatzekoa garatzen, eta horrek dakar indarkeria belaunaldiz belaunaldi berriz gertatzea.

Horrela, emakumeak biktima-ideiari loturik agertzen dira askotan. Egia da alde handia dagoela emakumeek erabiltzen duten indarkeriaren eta jasaten dutenaren artean, jasaten dutena askoz handiagoa baita; eta egia da, halaber, gizonak ez bezala emakumeek emakume izate hutsagatik indarkeria jasaten dutela, gizonetzkoen boterearen mende jartzeko. Ikusi den bezala, ordea, biktimizazioen % 52k edo gizonetzkoek jasaten dituzte eta, hala ere, jendearen irudipenean biktimak emakumeak izaten dira beste guztien gaineratik. Estatistikari begiratuta, emakumeek gizonak baino aukera gutxiago dituzte delituetako biktima izateko, baina, hala ere, emakumeen segurtasun-sentipena askoz txikiagoa da. Beste kontu bat da emakumeak direla «pertsonen aurka» kategorian jasotako delituetako biktima nagusiak.

Benetako arriskuaren eta emakumeek hautemandako arriskuaren arteko alde hori azaltzen du, orobat, honako honek: «hitz egin ohi ez dugun indarkeria bat da, indarkeria sinbolikoa, hau da, ikusten ez den indarkeria bat, zeinaren gainean emakumeen beldurra erakitzen den»⁴². Indarkeria horrek badu zerikusirik, batetik, komunikabideetako, filmetako, eta antzekoetako mezuen eta irudien ugaltzarekin, eta mezu eta irudi horien eta errealtatearen arteko aldearekin, emakumeak mota guztietako erasoak jasan beharko dituzten babesgabeko biktima modura agertzen baitira; eta, bestetik, emakumeen bestelako aldeak eta egoera horiei aurre egiteko eskura dituzten mota guztietako baliabideak erakusten dituzten mezu eta irudiak alde batera uztearekin. «Emakumeak ez dira beldurra dutela jaiotzen, beldurra izaten irakasten zaie. Ez zaie euren burua defendatzen irakasten eta, horregatik, erraza da emakumeei erasotzea»⁴³.

Beldurra jendea menderatzeko eta kontrolatzeko tresna ahaltsua eta eraginkorra da eta, kasu honetan, batzuen eta besteen arteko desparekotasuna betikitzeaz gain, joan-etorrien askatasuna eta oinarizko eskubideak bete-betean erabili ahal izatea mugatzen dizkie herritarren erdiei, ez baita ahaztu behar indarkeria sinbolikoa delakoak era batera edo bestera emakume guztiei eragiten diela.

Eusko Jauriaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2015ean egindako inkestaren arabera⁴⁴, herritarren % 77k uste dute emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak bere horretan dirauen bitartean emakumeen eta gizonen aurkako indarkeriak jarraituko duela (hala pentsatzen dute emakumeen % 80k eta gizonen % 73k). Herritarren % 90ek uste dute indarkeria hori onartezina dela eta legez zigortu

⁴¹ Díaz-Aguado, María José: *Adingabeak eta genero-indarkeria*, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzarentzat, 2020. [Esteka](#)

⁴² Beldur Barik: *Indarkeria sexistaren aurkako neska-mutilentzako gida*. 2010, 3. or. [Esteka](#)

⁴³ idem

⁴⁴ *Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzio eta iritziak*, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Lehendakaritza, Eusko Jauriaritza, 2015. [Esteka](#)

behar dela beti. Baina inkesta horren emaitza alderatzen badugu lehen aipatutako 2012ko *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna* izeneko azterlanak adierazitakoarekin, indarkeria matxistari buruzko hiru uste edo mito nabarmen handitu direla ikusten da:

- «Alkohol eta droga-abusua emakumeen kontrako indarkeriaren egintza gehienek atzetik dago» (% 50etik % 62ra).
- «Erakorik gehienak estres-maila handia dagoenean edo kontrola une batez galtzen denean gertatzen dira» (% 42tik % 61era).
- «Genero indarkeria kasuetan salaketa faltsu asko dago» (% 25etik % 39ra).
- Aitzitik, % 19tik % 14ra jaitsi da beste iritzi honekiko adostasun-maila: «emakumeen jarrera eta portaerek beraiek eragiten dituzte genero-indarkeria kasuak batzuetan».

Azken batean, esan daiteke herritarrak jabetzen direla emakumeen aurkako indarkeriaren arazoaren larritasunaz, baina, hura azaltzeko orduan, **uste faltsuak eta estereotipo sexistak daude oraindik**, eta indarkeria desagerraraztea oztopatzen du horrek.

Izan ere, EAeko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak aztertzen dituen Emakunderen azken txostenaren arabera (2019), erregistro ofizialek ematen duten informazioan arazoaren zati bat baino ez da ikusten, eta txosten horrek salatzen du askoz ere emakume gehiagok ez dutela jo poliziarengana, epaitegira edo beste laguntza-zerbitzuren batera, indarkeria jasan arren. Ildo horretan, indarkeria hasi zenetik laguntza eskatu edo salatu zen arte igarotako batez besteko denbora aztertu du Genero-indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren azterlan batek, eta horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan batez besteko denbora 11 urte eta 7 hilabete da⁴⁵.

Horrenbestez, gizartea, oro har, eta emakumeak, bereziki, kontzientziatzeari esker, salaketen kopuruak gora egin duela ikusten bada ere, oraindik asko dagoela egiteko erakusten du informazio horrek.

Herritarren segurtasunaren esparruan egiazko berdintasun eraginkorra lortzeko, rol eta estereotipo sexistak baztertu eta indarkeria gutxiagoko eta berdintasun handiagoko bizi-ereduak bultzatu behar dira hainbat motatako sozializazio-baliabideen bitartez (familia, eskola, komunikabideak,...). Horrek emakumeekin nahiz gizonezkoekin lan egitea eskatzen du, batez ere emakumei ahalmena ematea eta gizonek berdintasunaren alde eta indarkeriaren aurka parte-hartze handiagoa izatea bultzatzeko.

⁴⁵ Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek beren egoera hitzez adierazteko behar duten denborari buruzko azterlana. Igual a Igual Fundazioa, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzarentzat, 2019. [Esteka](#)

2.5 BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUA/ARAUAK
Emakumeen autonomia , independentzia eta erabakitzeke ahalmen pertsonala areagotzea sustatzea, eta emakumeen posizio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea.	1. art. , 4/2005 Legea 1.2 helburua , VII. EGBP
Berdintasunaren alde eta indarkeriaren aurka proaktiboak diren pertsonen, bereziki gizonen , kopurua handitzea.	1. art. , 4/2005 Legea 15.1-2 eta 6.1.4 helburuak , VII. EGBP
Sexuaren araberako rol ezberdinak ematen dituzten eta gizonen eta emakumeen arteko banaketa bidegabeari eusten dioten eredu soziokulturalak desagerraraztea, emakumeen aurkako indarkeriaren eragilea baita hori.	1. art. , 4/2005 Legea 67.2.a art. , 15/2012 Legea 3.1 helburua , VII. EGBP
Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak bermatzea	III. ardatza , VII. EGBP
Euskadiko Segurtasun Plan Orokorrean eta lurralde- zein sektore-planetan genero-ikuspegia sartzea eta, bere lehentasunen artean, emakumeen aurkako indarkeriaren forma eta adierazpen guztien aurkako borroka jasotzea.	67.1 art. , 15/2012 Legea Euskadiko Segurtasun Plan Orokorrearen 4.3 helburua
Ingurumenaren, etxebizitzaren, hirigintzaren eta garraioaren arloko politikek eta programek genero-ikuspegia barne hartzen dutela bermatzeko behar diren bitartekoak arbitratzea, pertsonen segurtasunari buruzko gaiak kontuan hartuta, besteak beste.	46. art. , 4/2005 Legea 1.4.2 helburua , VII. EGBP
Prestakuntza espezializatua ematea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzen eta babesa ematen esku hartzen duten poliziako kideei.	54. art. , 4/2005 Legea 6.2.5 helburua , VII. EGBP; 4. klausula , Erakundeen arteko II. Akordioa
Behar diren baliabideak ematea polizia-kidegoei emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan esku hartzerakoan eraginkortasunik handiena lortze aldera, eta, bereziki, etxeko tratu txarren biktima direnen babeserako onartzen diren neurri judizialen betearazteari eta kontrolari dagokionez. Horren guztioren helburua, hain zuzen, biktimen segurtasuna bermatzea eta biktima horiek, beren borondatearen aurka, beren etxebizitzak utzi behar izatea saihestea da.	54. art. , 4/2005 Legea; 4. Klausula , Erakundeen arteko II. Akordioa 6.2.6 helburua , VII. EGBP
Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetan genero-indarkeria prebenitzen eta hartutako neurri judizialak betearaztea kontrolatzen espezializatutako unitateak sortzea.	31.1 art. , 1/2004 Lege Organikoa 6.2 eta 7.2 helburuak , VII. EGBP
Ertzaintzan emakumeen presentzia handitzea , gutxienez ertzain guztien % 35 izan arte.	Ertzaintzaren berdintasun-politika Uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu

BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUA/ARAUAK
	bategina onartzearen, 43. eta 44. artikulua.
Erakundeetan erabakiak hartzeko maila eta esparru guztietan emakumeen ordezkariak handitzea , bai eta gatazken prebentzio, kudeaketa eta konponbiderako bitarteko guztietan ere.	GO14 eta 6.1 helburuak , VII. EGBP ; Nazio Batuen 135/2000 Ebazpena.
Udaltzaingoak , Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekin duten lankidetzaren esparruan, organo judizialek onartutako neurriak betearazten lankidetzan aritzeko beharrezko diren jarduerak bultzatzea.	31.2 art. , 1/2004 Lege Organikoa
Emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan, informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak ikertzea eta hobetzea , arlo horretako esku-hartze publikoa hobetzeko erabili ahal izateko.	51.1 art. , 4/2005 Legea 2. art. , 264/2011 Dekretua 6.2 helburua , VII. EGBP
Aldian-aldian ebaluatzea zein den Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen eta programen eraginkortasuna eta irismena .	51.2 art. , 4/2005 Legea 9. artikulua , 29/2001 Dekretua; 5. Klausula , Erakundeen arteko II. Akordioa 6.3.4 helburua , VII. EGBP
Emakumeen aurkako indarkeria-kasuetarako lankidetzahitzarmenak eta jarduera-protokoloak sinatzea eta ezartzea inplikaturako erakundeen artean.	43.3 eta 51.2 art. , 4/2005 Legea; 31.3 art. , 1/2004 LO; 62. art. , 3/2007 LO 8. art. , 29/2011 Dekretua 8.1 helburua , VII. EGBP; Erakundeen arteko II. Akordioaren 4. klausula
Emakumeen aurkako indarkeria-kasuen prebentzioa eta detekzio goiztiarra handitzea, modu proaktiboan jarduten duten hezkuntza-, osasun-, polizia-, epaitegi- eta gizarte-sistemako profesionalen kopurua handituz, eta dagokion esku-hartzea ezarritako protokoloen arabera eginez.	67.2.b art. , 15/2012 Legea 6.3.4 eta 7.1 helburuak , VII. EGBP
Indarkeriaren biktime diren emakumeen erabakiak hartzen eta itxaropenak egokitzen laguntzea, arreta integraleko prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren, inplikaturako zerbitzuetako profesionalen kopurua handituz, laguntza-, zuzenbide-, osasun- eta polizia-baliabideei eta -prozedurei buruzko informazioa hizkuntza ulergarrian eskaintzeko gaitasuna izanik .	2.3 art. , 27/2003 Legea 6.2 helburua , VII. EGBP
Administrazioek emandako zerbitzu eta baliabideetara jotzea erabakitzen duten emakume biktimen kopurua areagotzea, arreta berezia eskainiz zerbitzu eta baliabide horietara heltzeko aukera gutxiago duten emakumeei, informazio horretara heltzeko moduak ugaritu eta hobetuz .	GO8.4 helburua , VII. EGBP

BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
Indarkeria sexistaren biktima diren emakumeen segurtasuna eta arreta , harrera eta babes egokia bermatzea, bai eta haien erreparazio eta berreskuratze integrala ere .	67.2.c art. , 15/2012 Legea 7.1 helburua , VII. EGBP
Haurrak eta emakumeak haien aurkako edozein indarkeria motatatik babestea (sexu-indarkeria, salerosketa, sexu-esplotazioa, EMG)	6.2.2, 6.2.5, 7.2.2 eta 7.2.10 helburuak , VII. EGBP
Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko politiketan eta prozesuetan sistema integrala, koordinatua eta kalitatezkoa ezartzea, haien eraginkortasunaren eta emaitzen jarraipena eta ebaluazioa eginez.	67.2.d art. , 15/2012 Legea 7.32.7 helburua , VII. EGBP
Emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko baliabideen kalitatean, sarbidean eta hornikuntzan lurraldeen eta udalen arteko aldeak murriztea , batik bat landa-eremuko udalerrietan eta emakumeen aurkako indarkeriari heltzeko dauden baliabideak eskuratzeko aukerak areagotzea.	6.2.2 eta 7.2.1 helburuak , VII. EGBP

OHARRA: Herritarren segurtasunari buruzko berdintasun-agindu espezifikoek gain, modu orokorrean sektore guztietan aplikagarri diren berdintasunari buruzko aginduak ere aztertu behar dira; horiek guztiak, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak egiten lagundu duten materialetako alderdi juridikoei buruzko dokumentuan daude.

3. LEGEDIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKOA
<ul style="list-style-type: none">• <u>3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>5/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa.</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioa</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>Gobernu-programa (2020-2024) - XII. legegintzaldia. «Euskadi martxan»</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>BULTZATU Euskadiko Hiri Agenda 2050</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (2018-2021)</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2018-2021). Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>7/2019 Legea, ekainaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldatetarena.</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra 2020-2025</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena</u>
ESTATUKOA
<ul style="list-style-type: none">• <u>27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzkoa</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasuna eraginkorra izatekoa</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>Aukera berdintasunerako plan estrategikoa (2014-2016)</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzkoa</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>26/2015 Legea, uztailaren 28koa, eta 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa; lege horretan, zaintza partekatua baztertu egiten da genero-indarkeriaren kasuetan.</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>Genero-indarkeriaren alorreko estatu-ituna. Espainiako Gobernuak, 2017</u>
<ul style="list-style-type: none">• <u>Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko Lege Organikoaren aurreproiektua</u>

- Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko Lege Organikoaren proiektua. Diputatuen Kongresua, 2021eko apirilaren 14a

EUROPAKOA

- Kontseiluaren 2003ko urriaren 20ko Ebazpena, gizakien eta, bereziki, emakumeen salerosketaren aurka borrokatzeko ekimenei buruzkoa.
- Europar Batasunaren gidalerroak, emakumeen aurkako indarkeriari eta emakumeenganako diskriminazio mota ororen aurkako borrokari buruzkoak. 2008.
- 2006/54/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, enpleguari eta okupazioari lotutako gaietan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa (testu batagina).
- EUROPAKO PARLAMENTUA. EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ETA GENERO-BERDINTASUNAREN BATZORDEA. Desgaitasuna duten emakumei buruzko txostena. Europar Batasuna (2013).
- EUROPAKO PARLAMENTUA. DIRECTORATE-GENERAL FOR INTERNAL POLICES. POLICY DEPARTMENT. CITIZENS RIGHTS AND CONSTITUTIONAL AFFAIRS. The Issue of Violence Against Women in the European Union (2016).
- Genero-berdintasunerako Estrategia, 2020-2025
- Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko, 2011 (Istanbulgo Hitzarmena, Espainiak 2014an berretsia)

NAZIOARTEKOA

- Pekingo ekintza-plataforma, 1995.
- Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 135/2000 Ebazpena, emakumeari, bakeari eta segurtasunari buruzkoa.
- 62/134 Ebazpena, 2007ko abenduaren 18koa, bortxaketa eta bestelako sexu-indarkeria mota guztiak ezabatzeari buruzkoa, bereziki gatazka-egoeretan eta antzekoetan, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartua.
- 69/147 Ebazpena, 2014ko abenduaren 18koa, emakumearen eta neskatoaren aurkako indarkeria mota guztiak ezabatzeko ahaleginak areagotzeari buruzkoa, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartua.
- 68/193 Ebazpena, 2013ko abenduaren 18koa, Nazio Batuek delituaren eta justizia penalaren prebentzioaren arloan duten programa indartzeari buruzkoa, bereziki lankidetzatza teknikorako duten gaitasunari buruzkoa.
- 68/189 Ebazpena, 2013ko abenduaren 18koa, delituaren prebentzioaren eta zigor-justiziaren eremuan haurren aurkako indarkeria ezabatzeko ereduak estrategia eta neurri praktikoei buruzkoa.
- 68/188 Ebazpena, 2013ko abenduaren 18koa, zuzenbide-estatuari, delituaren prebentzioari eta justizia penalari buruzkoa, Nazio Batuen garapenerako agendan, 2015aren ondoren, delituaren prebentzioaren eta justizia penalaren arloko Nazio Batuen programa indartu ondoren, bereziki lankidetzatza teknikorako duen gaitasunari buruzkoa.
- Nazio Batuen 2030 Agenda, 2015.

4. DATU-ITURRIAK

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAK OTASUNA
<ul style="list-style-type: none"> Egindako delituak, motaren eta autonomia-erkidegoaren arabera Kondenatuak, autonomia-erkidegoaren eta sexuaren arabera 	<u>Delituen estatistika</u> <u>Kondenatuen</u> <u>Estatistika</u> EIN	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> Biktimizazioak, tipologia penalaren, erkidegoaren eta sexuaren arabera 	<u>Kriminalitatearen</u> <u>estatistika-ataria</u> BARNE MINISTERIOA	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> Presoak, autonomia-erkidegoaren eta sexuaren arabera 	<u>Espetxe-estatistika</u> BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> Euskal Autonomia Erkidegoko genero-indarkeriaren epaitegietan aurkeztutako salaketak 	<u>Emakumearen</u> <u>aurkako</u> <u>indarkeriaren</u> <u>estatistika judiziala</u> BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA	Hiru hilean behin
<ul style="list-style-type: none"> Atxiloketak eta ikerketak, arrazoiaren, lurraldearen eta sexuaren arabera Emakumeen aurkako indarkeria dela-eta Ertzaintzak ezagututako biktimizazioak eta biktimak 	<u>Delitu-estatistikak</u> ERTZAINZAREN delinkuentzia- memoria	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> Indarkeriaren biktima diren emakumeak eta biktimizazioak, hainbat aldagai kontuan hartuta: emakumeen aurkako indarkeria mota, lurralde historikoaren, biktimaren adinaren, kaltegarritasunaren edo biktimak erasotzailearekin duen harremanaren arabera. 	<u>Justiziarri eta</u> <u>segurtasunari</u> <u>buruzko estatistikak</u> EUSTAT	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> Segurtasun-sentimendua bizileku-eremuan gaez bakarrik ibiltzean, sexuaren arabera. 	<u>Herritarren</u> <u>segurtasun-</u> <u>pertzepzioari</u> <u>buruzko inkestak</u> EUSKO JAURLARITZA	Maiztasun zehatzik gabe
<ul style="list-style-type: none"> Ertzaintzaren zerbitzupeko langileak sexuaren arabera 	EAEko <u>Administrazioaren</u> <u>zerbitzupeko</u> <u>langileen estatistika</u> GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA	Sei hilean behin

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAK OTASUNA
	EUSKO JAURLARITZA	
<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen kontrako indarkeriaren ondorioz hildakoak EAEn. • Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko biktimizazioak indarkeria motaren arabera. • Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, indarkeria motaren arabera. 	<p><u>Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko estatistika.</u> EMAKUNDE</p> <p><u>Genero-indarkeriaren ondorioz hildakoen fitxak</u> GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA</p>	Hilean behin eta urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • BLZren erabiltzaileen profila, sexuaren eta lurralde eta delitu motaren aldagaien arabera. 	<p><u>Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren (BLZ) urteko memoriak</u> LAN ETA JUSTIZIA SAILA EUSKO JAURLARITZA</p>	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Kide anitzeko organoak, sailaren eta sexuaren arabera. Osaera eta lehendakaritza, sexuaren arabera 	<p><i>Emakumeen eta gizonen presentzia Euskadiko</i> EMAKUNDE</p>	Maiztasun jakinik gabe
<ul style="list-style-type: none"> • Herrizaingo Sailean emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua duten enplegu publikoa eskuratzeko, betetzeko edo sustapenerako hautaketa-prozesuen kopurua. 	<p>Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta sail horietako organismo autonomo eta erakunde publikoen jardueraren jarraipena.</p> EMAKUNDE	Urtean behin

5. ERREFERENTZI-AGIRIAK

AZTERLANAK ETA TXOSTENAK

- *Análisis de la situación profesional de las mujeres ertzainas*. Egileak: Gema Tomás, Mariola Serrano, Monica Ibañez, Aitziber Barrutia eta Jon Leonardo Aurtenetxe. Deustu Fundazioa. 2009⁴⁶.
- *Igualdad y prevención de la violencia de género en la adolescencia*, Egilea: María José Díaz-Aguado et. al. Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioarentzat, 2011.
- *Las 7 P's de la violencia de los hombres*. Egilea: Michael Kaufman, Toronto, 1999.
- *Emakumeen egoera Ertzaintzan*. Egilea: Edurne González, Arkaute Akademiarako, 2011
- *Adingabekoei balioak transmititzea*. Txosten berezia. Arartekoa, 2009.
- *Plan de Reorganización y Modernización de la Ertzaintza*. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila, 2010.
- *«Gizonen indarkeriak: indarkeriaren legitimazioa, gizonen identitatearen eraikuntzan»*. Egilea: Xabier Odriozola. *In Maskulinitateak eta berdintasuna: jakintza-alor anitzeko azterketa*. Emakunde. 2011
- *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna*. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saila, 2012
- *«Adicción al Juego en la Mujer y Comorbilidad. Implicaciones para el tratamiento»*. Egilea: Enrique Echeburúa. *Revista de Patología dual*, 2014 1 (1): 2
- *Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzio eta iritziak*, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2015
- *Percepción de la violencia de género en la adolescencia y la juventud*. Egilea: Verónica de Miguel Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioarentzat, 2015
- *Emakumeen genitalen mutilazioa. Euskadiko osasun-sisteman gomendatutako jardunen gidaliburua*. Osakidetza, Emakunde eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, 2016
- *Protokoloa, lanean sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko dena*. Emakunde, 2016 *Genero-ikuspegidun hiri-berroneratzea*

⁴⁶ Emakunderen dokumentazio-zentroan eskuragarri

Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Agendaren esparruan. BULTZATU 2050. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza Eta Garraio Saila.

- EAEko delinkuentzia-kasuen azterketa, ERTZAINZA, 2019
- Estudio sobre el tiempo que tardan las mujeres víctimas de violencia de género en verbalizar su situación. Igual a Igual Fundazioa, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzarentzat, 2019.
- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak, EAE, 2019. EMAKUNDE, 2020
- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko txostena. Euskal Autonomia Erkidegoa. EAEko Euskal Estatistika Erakundea Emakumeen aurkako indarkeriari buruz. EUSTAT, 2020ko azaroa
- Macroencuesta de violencia contra la mujer. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza, 2019
- Menores y violencia de género. Egilea: María José Díaz-Aguado, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzarentzat, 2020
- Mujer, discapacidad y violencia de género. Egilea: Esther Castellanos, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzarentzat, 2020
- La respuesta judicial a la violencia sexual que sufren los niños y las niñas. Themis Emakume Juristen Elkarte, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzarentzat, 2020
- La situación de la violencia contra las mujeres en la adolescencia en España. Egilea: María José Díaz-Aguado, et. al., Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza, 2021

ESKULIBURUAK ETA GIDALIBURUAK

- Beldur Barik: Eraso sexisten aurkako gida. 2019.

WEB-BALIABIDEAK

- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/segurtasun-saila/hasiera/>
- <https://www.ertzaintza.eus/lfr/eu/web/ertzaintza/>
- Emakunderen txostenak: <https://www.emakunde.euskadi.eus/dokumentazioa-argitalpenak/-/informazioa/txostenak/>
- <https://eu.eustat.eus/indice.html>